

OINARRIZKO ORDAINKETA KONTU BAT IZATEKO ESKUBIDEA



ZER DA OINARRIZKO ORDAINKETA KONTUA?

Europar Batasunean finantza-inklusioa sustatzeko beharrari erantzuten dioten kontuak dira Oinarrizko Ordainketa Kontuak, eta kontsumitzaileei oinarrizko banku-zerbitzuak eskuratzeko aukera eskaintzen diete.

Europaren arabera, kontsumitzaile ororen **eskubidea da banku-kontu bat izatea**, eta horregatik sortu ditu oinarrizko ordainketa-kontuak. Bankuak **behartuta daude kontu mota horiek eskaintzera**, eta horiek kontratatzeko baldintza gisa ezin du inor behartu beste zerbitzu batzuk harpidetzera. Horrez gain, behartuta daude kontu horiek **ezagutzera ematera, bai eta horien ezaugarrien berri ematera ere**.

INFORMAZIOA

GUTXIENEO ZER INFORMAZIO EMAN BEHAR DIT BANKUAK?

Kontu mota horiek daudela eta herritarrek horiek eskuratzeko eskubidea dutela	Oinarrizko kontu bat izateko ez dela beharrezkoa beste zerbitzu batzuk kontratatzea
Ezaugarri orokorrak	Nola ireki eta itxi daitezkeen kontu mota horiek
Zer komisio aplikatzen diren	Eztabaidak eta auziak ebazteko sistema alternatiboa

ESKAERA

ZER PROZEDURARI JARRAITU BEHAR DIO BANKUAK NIRI OINARRIZKO ORDAINKETA KONTU BAT IREKITZEKO EDO UKATZEKO?

Kontu mota horiei buruzko informazio guztia emateaz gain, bankua behartuta dago zure eskaera hartu, izapidetu eta 10 eguneko epean erantzutera.

Ez onartu inoiz ezezkorik leihatilan! Eskaera aurkezteko eskubidea duzu; eskatu eskubide hori!

ERANTZUNA

ZER ARRAZOIRENGATIK EGIN DIEZAIOKETE UKO KONTU HORIETAKO BAT IREKITZEARI?

- Dagoeneko kontu korrante baten titularra bazara Espainian.
- Segurtasun nazionalaren edo ordena publikoko interesen aurkakoa bada.
- Ez baduzu bankuak eskatutako informazioa ematen, kapitalak zuritzearen edo terrorismoaren finantzaketaren alorreko betebeharrak bete ahal ditzan.

OHAR GARRANTZITSUA: IFZ-rik edo bizileku- edota lan-baimenik ez izatea ez da berez kontua irekitzeari uko egiteko arrazoia. Arauak barnean hartzen du "bizileku-baimenik ez duten pertsonak" aukera dutela horrelako kontu mota bat izateko.

Eskatu beti idatzizko erantzuna!